



Sarobe gunearen XXV. urteurrena

Urnietako Udalak arte eszenikoen gunean burutuko diren urteurreneko ekitaldien berri eman du / 10-11

Hastear da Andoaingo Mendi Astea

Aitor Abendaño, Sonia Casas, Iker Karrera eta Fermin Ezkieta dira aurtengo gonbidatuetaoak. Azaroaren 11n, astelehenarekin, abiatuko da Mendi Astea / 12



Aitortza ekitaldia eta lagunarteko bazkaria Andoaingo zein Urnietako odol emailleei / 3



Kultur aniztasunean sakontzeko 'Bizilagunak' egitasmoaren edizio berria iristear da / 7



Andoaingo Gaztetxearen urteurreneko ekitaldiak, azaroan zehar / 14

#A10 Hauteskundeak
Herriz herriko emaitzak
Aiurri.eus webgunean



50€ BELTZA

60€ BERDEA

70€ ZURIA

Unioaren 30etik
Nafar hegoaldeko uza
euskarari puzka
azaroaren 20ra

**AGER
ALDIA**

ERRIGORA
WWW.ERRIGORA.EUS

aeek

Herriak Hiritik

Sorren



Iruñeko Katakarak liburudendan egin zuten aurtengo kanpainaren aurkezpen ekitaldia. KATAKRAK

Errigora, euskarari on egiten dion elikagaia

Erriberako euskararen aldeko ekimen ezagunena bilakatu da. Nafarroako elikagaien saskia erositako bertako ekoizpena sustatzeaz gain, euskarari bultzadaxoa ematen zaio. Auzolanean egiten den kanpainaren edizio berria dagoeneko abiatu berri da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Erriberakoa lur emankorra da, eta bertatik produktu ugari zabaltzen dira. Azken urteotan, euskara ardatz hartuta, arrakasta handiko ekimena sustatzen ari dira. Ekimenaren sustatzailerak ondo baino hobeto azaldu dute zer den Errigora: "Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararako eta euskaraz".

Helburua, beraz, euskalgintzari babesa ematea da: "Nafarroa hegoaldeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramate ditugu, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen ekonomiko garrantzitsua eginez". Egindako kalkuluen arabera, saski bakoitzaren balioaren %25a euskarari lotutako ekimenetara bideratzen da.

Kanpainarekin bat egiten duen euskaltzaleak produktu ezberdinez osatutako saskia jasotzen du etxean. Aurtengoan, hiru saski ezberdinen artean aukera egin daiteke:

- Saski beltza, betikoa (50 euro): Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, zainzuri-krema, teilak, melokotoia almibarrean, kardua, tomate frijitua, piper txorizeroa, mamia.
- Saski berdea, ekologikoa (60 euro): Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, arroza, pasta, barazki-menestra, ozpina.
- Saski zuria, berezia (70 euro): Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, krintza ardoa, patxarana, extra brut, polboroiak, patxaran mantekatuak, txokolatzeko arroak, pikillo piper marmelada.

Saskiak eskuratzeko aukera ugar dago, eskualdean.

Saskiak erosteko saltokiak

Datorren azaroaren 20ra bitarte hiru saskietako eskatzeko aukera izango da. Andoaindarrak Aita Larramendi ikastolan, AEK euskaltegia edota Martin Ugalde kultur parkean eskatu ahal izango dute.

Urnietarrek, aldiz, Hernaniko AEK euskaltegian eta Errigora gunean.



Saski zuria izenekoa. ERRIGORA



Oianumera hurbildutako urnietarrak. Hurrengo odol ematea azaroaren 27an izango da. AIURRI



Ekitaldira hurbildu ziren andoaindarrak. Azaroaren 12an, hurrengo odol ematea. AIURRI

Aitortza ekitaldia odol emaileen bilkuran

Beterri-Buruntzako eta Tolosaldeko odol-emaileen ospakizuna egin zuten Oianume jatetxean. Aitortza ekitaldia eta argazkiak egin eta gero, lagunarteko bazkaria eginez igaro zuten eguna. Azaroan odola emateko hitzordu bana izango da bi herrietan

Xabier Lasa URNIETA

Omendu zituzten urnietarrak hauexek izan ziren: Lourdes Agirretxe, Izaskun Aizpurua, Fantzisko Jabier Matxinandiarrena, Leire Peñagarikano eta Gemma Sanchez (25 aldiz, edo gehiagotan); Tomas Pellejero (50 aldiz, edo gehiagotan), Joxerramon Jauregi (75 aldiz, edo gehiagotan); Santiago Sanchez (80 aldiz, edo gehiagotan) eta Begoña Vicente (100 alditik gora).

Andoaindik, bestalde, hauexek: Nekane Etxenagusia, Javier Garcia, Jose Felipe Infante, Xabier Lekuona, Jose Macias, Mikel Mancisidor, Joxe Krutz Oiartzun, Moises Pablos, Mari Jose Sundegi, Julen Torregaray, Kontxi Urkola eta Juan Mari Zurirrain (25 aldiz, edo gehiagotan); Antonio Eizmendi, Jose Luis Guedejo eta Bittor Perez de Obanos (50 aldiz, edo gehiagotan), Joxe Mari Tolosa (100 alditik gora).

Mertxe Aizpurua

Jon Iñarritu

Gorka Eloiabarrieta

Bozkatu

ehbildu

Erabaki

BAIETZ!

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Urria

"Lezio hori ez dago ikasterik", *Agurraren Lezioa* abestiaren pasarteetako bat da.

2007ko maiatza. Agintaldiko azken plenoan Mikel Arregik agurreko diskurtsoa bota eta gero, korporaziokide guztiak txaloka hasi ziren. Udal hauteskundeak irabazi zituen, baina konstituzionalisten arteko akordioak Josean Perez Gabarain sozialista alkatetzara eramanez, Arregi jeltzalea oposiziora bidaliz.

2015eko uztaila. Ana Carreren bigarren agintaldia hasi besterik ez zen egin, ekainean jeltzaleen arteko abstentzio batek agintean jarraitzeko aukera berria eskaini ondoren. Gregorio Olasagasti herritarra hedabide guztien begiradapean izan zen, eta Euskadiko Fiskaltzaren ikerketapean. Egun gogorak Olasagastirentzat. Uztaileko plenora agertu zen eta, "gauza asko gertatu dira aste hauetan" adierazi eta gero, "herritarren aurrean" errenuntzia aurkeztu zuela adierazi zuen.

2019ko urria. Inaki Egibar Larrañaga ez da azken bi plenoetara agertu. Ibilbide luzea du: Jeltzaleen alkategaia izatera iritsi zen, agintaldi ezberdinetan zinegotzia eta birritan Gipuzkoako batzarkidea. Ekainean alkatea aukeratzeko negoziatzaileetakoa izan zen. Ardura postuak hartu zituen osatu berri den Udal gobernu talde berrian. Agurrik gabeko despedida izan da berea.

KOMUNITATEA

ANDOINGO MINTZALAGUNAK ANDOAIN

Inoiz baino gehiago gara

Andoingo Mintzalagunen ikasturteari hasiera eman zioten aurreko astean, urriaren 23an hasiera ekitaldi xume baten bitartez. Nobedade gisa, spot berria aurkeztu zuten.

Egitasmoan parte hartzen dutenak zein gainerako herritarrek ere hurbildu ziren, eta hala, Pituxa clownaren bakarriketaz gozatzeko aukera izan zuten. Horren aurretik, eta nobedade gisa, spot berria aurkeztu zuten, helburu duena egitasmoari haize freskoa eta umoretsua ematea. Dagoeneko herrian ezaguna egin den proiektua da honakoa. Izan ere, 50 laguneko kopurua gainditu dute, tartean talde egonkorak eta aldizka aldatzen doazenak daude. Osasuntsu eta bizi-bizirik



Mintzalaguna egitasmoaren aurkezpen ekitaldia, Andoingo udaletxean. AIURRI

dago, beraz, Andoango mintzalagunen sarea.

Parte hartzaileen kopurua igo denez, bidelagun gehiagoren beharra dago, batez ere, goizetan aritzeko

libre legokeena. Gogora dezagun ekimen honetan urte osoan zehar parte har daitekeela, eta norberaren beharretara egokitu daitekeela.

KOMUNITATEA

SALESIAR IKASTETXEA URNIETA

Meteoreologia behatokia

Joan zen urriaren 30ean, DBH 1. mailako ikasleek Donostiako Igeldoko meteorologia behatokia ezagutzeko irteera egin zuten. Bertan eguraldiaren iragarpenak egiteko eta neurtzeko beharrezkoak diren

tresnak ikusteko aukera izan dute. Margarita Martinek behategiaren historia eta funtzionamenduaz hitz egin die. 100 urte baino gehiago dira martxan jarri zutela zentru eta Gipuzkoako klima zaintzen duela.

Goiza amaitzeko tailer batean parte hartu dute, datu fenologikoak jaso dituzte lorategian dituzten landareak aztertuz. (Fenologia, klima eta urtaroen gorabeherek izaki bizidunengan duten eragina aztertzen duen zientzia-arloa).

KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

Inspira

Inspira STEAM proiektu aitzindaria da Euskadin, neskeengan bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatu nahi dituen. Horretarako sentsibilizazio eta orientazioko ekintzak egingo ditugu ikerketa eta teknologia arloetako emakume profesionalen eskutik. Beraz, STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) irakasgaiak sustatzeko proiektua da. 6 saiotan aholkulariaren eta nesken arteko topaketak egingo dira helburu hauek lortzeko: zientzia eta teknologiako lanbideen inguruko zalantzak argitzea eta oztopoak gainditzea, motibazioak argitzea eta lanbide horretan hasti nahi izanez gero autoestimua sendotzea.

Aurten ikastolan 6. mailako ikasleekin lanean ditugun mentoreak Jone Cercadillo Ibarburen eta Ane Izaskun Aranburu dira, lehenengoa Enpresa eta Administrazio kudeaketan lizentziatua eta bigarrena EHU doktoretza egiten ari den kimikari ikertzailea.

Komunitatea

Aiurri.eus gunean eragile ezberdinek euren atala sortzeko aukera dute.



andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeka.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



KOMUNITATEA


MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Bazkunaren inguruko hausnarketa saioa

Andoaingo euskaltzale gazte eta helduen iritzia ezagutu nahi da, datorren azaroaren 16an goizeko 10:30ean Basteron hasiko den bilkuran.

Azaroaren 16an, larunbatarekin, goizeko hamarretatik aurrera, Basteroko ekitaldi aretoan hausnarketa topaketa antolatu du Larramendi Bazkunak; horren helburua, herriko euskaltzale gazte eta ez hain gazteen iritzia ezagutzea da, aztertzea euskararen inguruko egitasmo sendorik antola ote litekeen manuel larramendi kultur bazkunaren eskutik eta deliberatzea, azkenik, belaunaldi gazteak prest ote dauden larramendi bazkunaren egitasmoari jarraia ematearen erronkari heltzeko.

Izan ere, aurtengo maiatzean Manuel Larramendi Kultur Bazkunak egindako biltzar nagusian lehendakari berria hautatu zuten: Ariane Obineta gazte andoainarra, eta bazkideek argi eta garbi adierazi zioten lehendakari hautatu berriari zein zuen



Ariane Obineta eta Jon Unanue Bazkuneko azken Biltzar nagusian. AIURRI

lehenengo eginkizuna: hausnarketa saioak antolatzea, argitzeko zein izan den arrazoiak Bazkunaren egitasmoak indar handiago har ez zezan herrian urte hauetan guztietan, eta argitzeko, bide batez, Manuel Larramendiren inguruan zabalduko bideak etorkizunari begira ba ote duen aurrera egiteko aukerarik.

Hausnarketa saio horietako lehenengoa Andoainaren egingo da, eta belaunaldi berriak

euskalgintzara erakartzeko aukera gisa mahai gainean jarriko den beste gaia Larramendi eguna antolatzeko proposamena izango da. Izan ere, 2020ko urtarrilaren 25ean Larramendi eguna antolatuz – urtarrilaren 29an Manuel Larramendiren heriotzaren 254. urteurrena izango baita –, suspertu egin nahi da euskararen erabileraren aldeko mugimendua herrian, baita eskualdean ere, euskararen hausnarketa

aitzindari eta euskalgintzaren sortzaile izan zenari gorazarre eginez, baina, beti ere, etorkizuneko komunikazio eta harreman beharretara egokituz.

Horrenbestez, azaroaren 16ko saioan elkartzen diren herritarrek euskararen aldeko jardunari jarraia nola eman izango dute aztergai eta belaunaldi gazteak gai ote diren euskararen erabilera suspertzeko ekimen iraunkor bati hauspoa emateko. Hausnarketa saioan parte hartzeko ez da nahitaezkoa izena ematea, baina egoki antolatu ahal izateko komeni da. Izena aurretik eman nahi dutenek, euren asmoa azal dezakete bazkuna@larramendi.org helbidera idatziz. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 656-782-521 zenbakira.

HAUSNARKETA SAIOETAKO LEHENENGOA ANDOAINEN EGINGO DA, HILAREN 16AN

HAU ERE BADUGU!

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak



Aurten lehen aldiz finalistak izango dira Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian. Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak, bederatzina mila eurokoak: “Kazetaritza saria” bata, eta “Komunikazio saria” bestea. Bi sarietarako launa finalista izendatu ditu epaimahaiak. Finalisten artetik azkenean saridunak nortzuk diren sari banaketa ekitaldian jakingo da. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 28an izango da, Andoainen, Bastero Kulturunean, 19:00tan egingo den ekitaldian. Finalistak ere bertan izango dira, eta beraiek ere orduan jakingo dute, ez lehenago, nortzuk diren saridunak. Ondorengo zortzi finalista horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo RAKSen saridunak.

Kazetaritza saria

- Jon Artano Izetaren 2019. urteko kronika eta elkarrizketak Ameriketarik, EITBn.
- “Iraultza txikien lekukoak” atala Elhuyar aldizkarian, Ana Galarraga Aiestaranen eskutik.
- “Zozoen elean” elkarrizketa sorta (bost elkarrizketa) Berrian, Miel Anjel Elustondoren eskutik.
- Kanaldudeko “Hurbiletik” saioko 2019ko uda arteko atalak.

Komunikazio saria


- 2019. urteko Korrikaren komunikazio kanpaina.
- Ttap aldizkari digitalak 2019. urtean sendotze bidean emandako pausoak.
- “Egunean behin” jokoak, CodeSyntaxen eskutik.
- “Barruan gaude” podcasta, Oier Aranzabalek Zuzeun argitaratzen duena.

GORA ETA BEHERA



Aiurri.eus webguneko Komunitatea atala

Ikasturte berriarekin batera, eta Aiurriko webgune berriak eskaintzen dituen aukerak baliatuta, Andoaingo eta Urnietako eragile ezberdinek euren berri emateko aukera dute. Ikastetxeak, Mintzalagunak egitasmoa, Ipar Haizea kolektiboa edota Larramendi Bazkuna parte hartze aktiboa izaten ari dira.





Udal ordezkariak, ikastetxeetako ordezkariak eta egitasmoa aurrera eramango duten adituak elkartu ziren prentsa agerraldian. AIURRI

Klik bakarrera, ikasleen egoera emozionala

Andoaingo hiru ikastetxeen esku utzitako tabletetan Emantik izeneko APPa instalatu dute, zeinaren bidez lehen hezkuntzako haurren egoera emozionala erregistratzeko aukera egongo den. Udalak bat egin du egitasmoarekin

Xabier Lasa ANDOAIN

Joan zen astean, prentsa agerraldian, tablet horien lagapenaren sinadura ekitaldia egin zuten. Eta bertan izan zen Andoaingo Udal ordezkariak zabala, hiru ikastetxeetako ordezkariarekin batera.

Egitasmoarekin, Andoain haurren tratu onarekin konprometitu dagoen herria dela adierazi nahi zen. Maider Lainez

alkateak egitasmoaren helburuak aditzera eman zituen: "Haurren gan gerta daitezkeen sufrimendu-kasuak goiz antzeman nahi dira. Sistemak beldurrak, tristura, amorrua, identifikatuko ditu. Programaren garapenean, haurren babesean adituak diren bi psikologok ikastetxeetako irakasleei aholkuak emango dizkiete". Emantik izeneko programa pilotoa da.

Hasiera batean gela batzuetan bakarrik ezarriko dute. Helburuak betetzen dituela ikusten

HASIERA BATEAN, PROBA MODURA, SISTEMA GELA BATZUETAN EZARRIKO DUTE

bada, etorkizunean gela guztietara zabaltzeko asmoa dute.

Agerraldia ordezkariak politikoa zabala hurbildu zen: Maider Lainez alkatea, Mari Jose Izagirre Sustapen ekonomikoa, enplegua eta Gazteria saileko zinegotzia eta Andoni Alvarez (EH-Bildu), Ascen Parron (PSE-EE) eta Tere Santana (Elkarrekin Podemos) zinegotziak.

Ikastetxeen izenean, berriz, Aita Larramendi ikastolako Letizia Bertolez eta Aitor Iriondo, La Salle-Berrozpe ikastetxeiko David Urtasun, Oihane Agirre eta Aitor Azurmendi eta Ondarreta ikastetxeiko Maite Petrikorena eta Idoia Otamendi.

Eta, azkenik, egitasmoa kudeatuko duten HZ eta HEZIZERB enpresetako teknikari eta psikologoak: Iratxe Salazar, Josune Balentziaga, Maider Saralegi, Carlos Argilea, Pili Azpeitia eta Iker Alustiza.



Josune Balentziaga. AIURRI

Josune Balentziaga

"Aurteztu berri dugun EMANTIK aplikazio multimedia tablet bidez gauzatzen da, eta bertan oinarrituko sei emozio agertzen dira, ikasleek era erraz batean identifikatzeko moduan. Eta zertan datza? Aplikazioa ikaslearen sentsazioa zein den jasotzen ahaleginduko da. Egunean bi momentu hartuko dira, ikasle bakoitzak sentitzen duena klik bidez adieraz dezan. Jasotako datu horiek aztertu eta ondorioak ateratzeko baliagarria izango da. Adibidez, gela jakin batean ikasleak bereziki haserre daudela, ondoko gelan bereziki pozik daudela..., programak informazio jakina emango digu. Baina horren gainetik, jakina, irakaslearen begirada dago. Horrenbestez, informazio osagarriak dira batetik eta bestetik iritsiko zaizkigunak.

Froga txikia egingo dago, eta ikusi da ikasleak aplikazio horretara oso erraz moldatzen direla. Ez du ikasketa erritmoa oztopatzen, hiruzpalau minututan ikasle guztiak prozesutik pasatzen baitira. Anonimoa da, klik egiten ari den ikaslearen izenik ez baita agertzen, ezta argazkirik ere..."





Otamendi, Hurtado eta Sarasola andoaindarrak. AIURRI

Bizilagunak egitasmoa

Estereotipoak eta aurreiritziak haustea helburu duen Bizilagunak ekimenak edizio berri bat ospatuko du, azaroaren 17an. Bertako eta atzeritik etorritako pertsonak edo familiak otordu baten inguruan bilduko dira, dinamizatzailer bat ondoan edukiz

Xabier Lasa ANDOAIN

SOS Arrazakeria eskubide berdintasunaren aldeko giza mugimenduak bultzatzen du ekimena Euskal Herri osoan, eta badira zenbait urte Andoainen ere egiten dela. Iñaki Otamendi, Natalia Hurtado eta Xabier Sarasola andoaindarrak ekimenean parte hartuko dute. Hiruek ere bada-kite zer den urrunetik etorritako herritarrekin bazkari baten inguruan biltzea.

Luzea da Otamendiren eskarmentua: “bikoteak, alabak eta hirurok urte mordoan daramagu topaketak ospatzen, eta urtero gertatu zaigu aberasgarria. Izan ere, munduko hainbat herrialdeetako jendea ezagutzeko aukera eman digu: Mexiko, Nigeria, Sahara... Aurten Andoainen bizi den Siriako familiarekin daukagu hitzordua. Azken batean, oso ekintza xumea da, mahai batean biltzea bazkaltzeko. Lotsak kentzea da norberari eskatzen zaion ahaletin handiena. Beharbada lehenbiziko kontaktu hori da ezinegona-edo sor dezakeena, baina horretarako daude bitartekariak, giroa goxatzeko”.

Kanpotik heldu diren pertsona horiekiko gutxieneko interesa ere beharrezkoa dela erantsi du Otamendik: “jakin mina behar duzu eduki, munduan dagoen aniztasunarekiko... Aberastu egiten zaitu zureak edo gertuko bizipenak ez diren beste batzuek entzutea. Jende hori nondik datorren, zergatik, zeintzuk diren euren asmoak...”.

Natalia Hurtado eta Xabier Sarasola bikoteak Mongoliako familia batekin egin zuen bilkura, iaz. Bizilagunak ekimenarekin errepikatze asmoa agertu dute orain, bizipen hura aberasgarria suertatu zitzaizela pentsatuta. Jatorriz Kolonbiakoa den Hurtadok adierazi du horrelako topaketek emigrazioa ulertzen laguntzen dutela. “Bi aldeak ohartzen dira normaltasunez hartu behar dela emigrazioaren fenomeno. Aurreiritziek ez dutela izateko arrazoirik”.

Bertakoei dagokie lehen pausoa ematea

Bertakoei dagokie lehen pausoa ematea, Hurtadoren iritziz. “Etor-kina mentalizatuta heltzen da,

jakinda oztopoz betetako bizi-modura egokitu beharko duela. Bertakoak eskua luzatzen badio bazkariaren keinu txikiarekin besterik ez bada ere, orduan gauzak leundu egingo zaizkio”.

Sarasolak adierazi duenez, etor-kin batentzat lehentasunezko kontua lurralde berri batean egokitzea da, eta beraren eta bere familiaren ongizatea ziurtatzea: “Ondoren piztuko zaio bertako gizartean integratzeko eta bertako jendearekin nahasteko premia. Nolanahi ere, egia ere bada batzuei ez zaiela kezka hori pizten. Soilik beren mikromunduan mugitzen dira, bera bezalako jendearekin nahasten dira, leku jakinetan kontsumitzen dute edo aisialdiaz gozatzen dute aisialdiaz...”.

Otamendi, Hurtado zein Sarasolarentzat haurrak dira aipatutako harresi mentalak eta kulturalak hausteko antidotorik eraginkorrenak: “Haurrak hurrekin normaltasunik handienarekin harremantzen dira, non-gotarrak diren elkarri galdetu gabe, eta hortik aurrera, gurasok derrigortuta daude bide beretik segitzera”.



Nouh Zoubairi marokiar gaztea. AIURRI

Nouh Zoubairi, 29 urteko gaztea

Bigarren urtea da Bizilagunak ekimenean parte hartzen dudala. Orauin lau urte heldu nintzen Euskal Herrira, eta iaz, Sorabillako harrera etxean bizi nintzen, eta bertako mutilak animatu egin ginen, eta Andoingo bertako gazte kuadrila batekin egun polita igaro genuen. Herriko elkarte batean bildu ginen, bazkari goxo baten inguruan. Haiei zein guri bazkariak balio izan zigun lehenbiziko hoztasuna hausteko. Harrezkero, beste bazkari baterako elkartu ginen; guk Sorabilla gonbidatu gonbidatu genituen. Egia esan, Bizilagunak primeran etorri zitzaigun herriko jendearengana hurbiltzeko. Izan ere, Sorabillan zaudenean eguna di-da batean joaten zaizu, prestakuntza ikastaroetan murgilduta baizabilza normalki. Gainera, Sorabilla urrun geratzen da herri kaskotik, eta apenas daukazu aukerarik jendea ikusteko ere. Gauzak horrela, zaila daukazu kalera irten eta bertako herritarrak ezagutzeko, eta haiek ere gu ezagutzeko. Integratzeko eta bertako jendearengana hurbiltzeko makina bat traba daukagu, hizkuntzarenaz gain, Horrexegatik izugarri eskertzen da hurbilketa errazten duten ekimenak.

Caritasek zuzentzen duen Sorabillako harrera etxeak urte eta pikoko laguntza eskaintzen die gu bezalako etorkin gazteei, eta nire kasuan jada amaitu zen egonaldi hori. Hari esker lana topatu nuen, eta Andoainen bizi naiz orain. Nolanahi ere, Sorabillako jendearekin harremana mantentzen jarraitzen dut; oraintxe bertan bizi diren gazteak etorri berriak dira, magrebtarrak eta Saharaz azpikoak gehien-gehienak, euskaldun bat kenduta. Ez dakitela zer den Bizilagunak, alegia. Horrexegatik, iazko esperientziaren berri ematea egokitu zait niri. Batzuei kosta egin zaie ulertzea herrian badagoela jendea haiekin otordu baten inguruan elkartu nahi duena, beste inongo asmorik gabe. Mesfidantza hori etor liteke igual ez dutelako oso eskarmentu gozoz bizitu sorlekua halabeharrez atzen utzi zutenetik. Eta gero, tartean, badira izaeraz lotsatiak direnak, “zer egin behar dut nik pertsona ezezagun baten aurrean, bi hitz ulergarri trukatzeko ere ez gara kapaz izango eta?” Ezkor jarri zaizkit, baina baietz, merezi duela eta probatzeko erantzun diet nik. Konbentzitzen lanak eduki ditut, baina animatu dira; azken batean desiatzen baitaude euskal gizartera irekitzeko, orain daukaten errutinatik irtenda. Hamabi bat lagunek kuadrilla bilduko gara azkenean”.

Zumea plazan, azaroaren 17an

Bizilagunak eta Ongi Etorri Eskolara ekimenak batera egingo dituzte. Hitzordua Zumea plazan ipini dute, 13:00tan hasita. Familian, taldean edo banaka eman daiteke izena, 943 321 811 telefono zenbakira deituz edota bizilagunak@sosracismo.eu korreora idatziz.



Urriaren 31ko Udal batzaraldiko irudia. AIURRI

Alderdi abertzaleak, Kataluniarekin bat eginda

Iñaki Egibar Larrañaga EAJ-PNVko zinegotziaren errenuntzia ofizial egin zen. Aurrerantzean, Imanol Goenaga Egibarrek ordezkatu du. Urriaren 31ko plenoan, botoetan berdinketa eman zen bakoitzean, alkatearen kalitatezko botoa lehenetsi zen

Erredakzioa ANDOAIN

Udal politikagintzan ibilbide luzea egin du Iñaki Egibar jeltzaleak, eta dagoeneko historia dela esan daiteke. Bizitza politikoak aurrera darrai, eta urriaren 31ko Udal batzaraldian hainbat aztergai izan zen. Azpimarratzekoak, onarpenerako aurkeztu ziren bi mozioak. Gaurkotasun handiko gatazkei lotuta daude.

Erresidentziako langileen greba

Denboran luzatuz doan lan gatazka da. Lan hitzarmena berritzeko akordioa lortu ezinik da biltzala, langilegoak duela urtebete mobilizazioei ekin zion. Egunotan, mozioak aurkezten ari dira hainbat udalerritan. Andoainen EH Bilduren eta Elkarrekin Podemos alderdien babesa izan zuten. Grebalariek batzuk plenoan parte hartu zuten, gainera.

Aitzitik, langileek aurkeztu zutenaren erantzun modura, bigarren mozioa aurkeztu zuten gobernu ardurak dituzten PSE-

EEK eta EAJ-PNVk. Azken hori atera zen aurrera.

Grebalariek mozioak, besteak beste, honako eskaerak biltzen zituen: Aldundiari konponbidean ekimena hartzea, gatazka epe laburrean konpontzea eta grebaren eragin negatiboa bere gain hartzea.

PSE-EEren eta EAJ-PNVren botoekin aurrera atera zen mozio alternatiboak eskaera hauek biltzen zituen: Lan gatazkak erabiltzaileengan eta haien senideen artean sor ditzakeen gorabeherengatik kezka agertzea, inplikaturik dauden sindikatu eta ugazaba guztiei akordioa lortzeko eskatzea eta Aldundiari gutxienezko zerbitzuak bermatzeko eskatzea.

Kataluniako auziaren sententzia

Auzi honetan, Verdasco sozialistaren eta Alvarez eta Arregi abertzaleen artean oso iritzi ezberdinak daudela agerian geratu zen. Bozketan, EH Bilduk eta EAJ-PNVk adostutako mozioa

aurrera atera zen. Lehen puntuan, "Kataluniak eta Euskal Herriak etorkizuna erabakitze-ko eskubidea" dutela onartzen zen. Bigarrenetan, Auzitegi Gorenaren epaia justifikaezina dela adierazten zen. Mozio berean preso edo erbestean dauden gizarte eta politika mailako kideak berehala aske uzteko eskaera egiten zen. Horiei guztiei elkartasuna adierazten zitzaizkien, mozioaren azken puntuan.

N1 eta A15 arteko lotunea

Jon Zulueta EH Bilduko zinegotziak Foru Aldunditik eta Andoaingo EAJtik iragartzen ari diren Bazkardoko lotune berriarekiko kezka agertu zuen. Historikoki, egitasmo horrekin Andoainen egon den adostasun politikoa gogora ekarri zuen. Marijose Izagirre jeltzaleen bozeramaileak EH Bilduren kezka kontutan hartuko dituela erantzun zuen. Egitasmoaren lanke-ta hasi besterik ez dela egin gaineratu zuen ere.

Plenoko aztergai nagusiak



Erresidentzietako grebalariek plenoan izan ziren. AIURRI

Erresidentziako lan gatazka Denboran luze jotzen ari den greba da. Haien eskaerekin bat egin zuten EH Bilduk eta Podemosek. PSE-EEK eta EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa izan zen, ordea, aurrera atera zena.



Urrian zehar elkarretaratze ezberdinak izan dira. AIURRI

Katalunia Auzitegi Nagusiaren epaiak hautsak harrotu ditu Katalunian, Euskal Herrian eta Espainian. Andoainen alderdi abertzaleek aurkeztu zuten mozioa aurrera atera zen. PSE-EEren mozioa bazterrean geratu zen, nahikoa babes lortu gabe.



N1 eta A15 autobidearen arteko lotunea. AIURRI

N1 eta A15 arteko lotunea EH Bilduk EAJ-PNVri eta, oro har, Udal gobernu taldeari, Aldunditik iragarri den egitasmoagatik galdera luzatu zien. Galdera egitearekin batera, historikoki alkate ezberdinek izan duten jarrera bateratua gogorarazi zien.



Tasa eta zergak bozkatu ziren unea. Adostasun osoz onartu ziren. URNIETAKOUDALA

Zerga sistema hobetzen joateko adostasuna

Ahobatez onartu dira 2020 urteari dagozkion ordenantza fiskalak. Adostasuna handia da, baina badira arlo batzutan hobekuntzak egiteko asmoa. Horixe izan zen oposizioaren eskaera, eta alderdi guztiak hobetzeko saiakeran bat datozela dirudi

Erredakzioa URNIETA

Ordenantza fiskalak aho batez onartu ziren, joan zen astean Udalak deitu zuen plenoan. Oro har, tasa eta zerga gehienetan aurreko urteetako joerari eutsiko zaio. %0,6ko igoera aplikatuko da, KPIaren indizearekin bat eginez. Udalak ohar bidez emandako datuen arabera, familia bakoitzaren urteko presio fiskala 631,75 eurokoa izango da. Batz besteko hori ura, zaborra, IBI-a eta ibilgailuen zerga aintzat hartuta egiten da. Plenoan Mikel Pagola alkateak ordenantzaren xehetasunak eskaini zituen. Jarraian, ordezkari politiko bakoitzaren azalpen nabarmenenak.

Mikel Pagola, Alkatea

“2020an tasa eta zergei dagokionez, kontzeptu guztiengatik, ia 4,6 milioi euro jasoko genituzke. Aurrekontu osoa 9 milioitik gorakoa izango dela kontutan hartuta, ia kopuru erdiaz hitz egiten ari gara. Gaur onartzen dugunak, beraz, garrantzia han-

dia daukala nabarmendu behar da. Irizpide orokor gisa, Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) hartu da. Hots, %0,6a. Hori da printzipio nagusi bezala aplikatu den igoera”.

Herme Gonzalez, PSE-EE

“Batzorde informatiboan esan bezala, proposamenarekin ados gaude. Bada gauza bat erantsi nahiko genukeena, eta ez da berria. Hobariei buruz ari gara. Aztertu beharko litzatekeen gaia dela adierazi nahi dugu. Zeren eta badira, familia ugaria izan gabe, diru sarrera apala duten haur bat edo biko familiak. Gauza bera jubilatuta eta pentsiodunekin, oso dirusarrerara ezberdinak dituztelako.

Hondakinen txartelei dagokionez, benetan birziklatzen dena aztertu beharko litzateke. Txartela izate hutsak ez baitu bere horretan birziklatzen duela justifikatzen.

Kirol instalakuntzei dagokionez, zorretan gaude urnietarrekin. Ez baitute igerileku itxirik izango. Beste herrietara doazenei nolabaiteko laguntza ematea aztertu beharko genuke”.

Ainara de Miguel, EH Bildu

“Igerilekuari dagokionez, Andoingo igerilekura larunbatero urnietarrez beteta dago. PSE-EEK

adierazitako kezkarekin bat egiten dugu, eta ondo legoke errealitate hori aztertzea. Etor-kizunera begira, hobariak zehazteko garaian, indarrean dauden baremoak berrikustea ondo legokeela iruditzen zaigu. Oro har, bat gatz aurtengo proposamenarekin, eta hurrengo urterako beste lanketa batzuk irekiko ditugu”.

Bozeramaileen adierazpenak entzun eta gero, ordenantza fiskalen inguruan ez zuten eztabaida luzatu nahi izan. Oposizioari erantzunez, Mikel Pagola alkateak hainbat datu gehigarri eskaini zituen. Urnietako 1.920 etxebizitzatan hondakinak bereizteko txartelak banatu dira. Beste 175 etxeetan konpostagailuak dituzte eta, azkenik, txartelik hartu gabekoen kopurua 200 ingurukoa da.

Txartelaren erabilera datuak doitzeko programa informatiko baten erabilera iragarri zuen, segidan.

Hobariei dagokionez, eta oposizioa eskaerei erantzunez, “lanketa egin beharko da, baina erantzun egokia bilatzea zaila” izan daitekeela adierazi zien.

2021eko ordenantzak hobetzeko saiakerari dagokionez, hiru alderdien adostasuna erabatekoa izan zen.



UDALA

Aurrerapausoa igogailuan


Eteneta-Idiazabal kalea eta San Juan plazaren inguruak lotuko dituen igogailuaren eraikitze lanetan aurrerapauso handia eman dute, aire bidezko argindarra lurrazpitik pasaz. Udalak adierazi duenez, estetikaz gain segurtasun aldetik ere urratsa eman da.



UDALA

Dokumentu bizia

Azken emaitza Araudi enpresaren esku geratu da, eta amaitu bezain pronto jendaurrean erakutsiko dutela iragarri dute. Plana dokumentu bizia dela erantsi dute, “bilerara joan ez ziren herritarrei ere ekintza horien artean haien lehentasunak ezartzeko aukera” emango zaielako.



UDALA

Hitzarmena berritu dute

Urnietako Udalak 2018an Xoxoka Motor Kirol Klubarekin sinatu zuen lankidetzat hitzarmena berritu du. Hitzarmen berrian klubaren eskaera berri bat aintzat hartu eta, aurrerantzean, klubak Udalaren lokal bat erabiltzeko aukera izango du.

**URNIETAR
BAKOITZAREN
PRESIO FISKALA
631,75 EUROKOA
IZANGO DA 2020AN**



Aranguren, Pagola eta Rosco Saroberen hogeitabosgarren urteurreneko ospakizunen aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Saroberen urteurrena ospatzeko egitarau zabala

Dantza, antzerkia, musika, zinema..., Sarobe Arte Eszenikoen gunea kultur industria ezberdinen topagune bilakatu da. Martxan jarri zenetik hogeita bost urte beteko dira, eta Udalak azaroaren 15ean abiatuko den egitarau zabala aurkeztu du

Erredakzioa URNUIETA

Urnietako Udalak, lau asteburu ezberdinetan zehar, Sarobe arte eszenikoen XXV. urteurrena ospatuko du. Egitarau zabalaren bitartez, gainera, astearte eguerdian aurkeztu zuten bezala. Agerraldian Mikel Pagola alkateak parte hartu zuen, eta harekin batera David Rosco zinegotzia eta Eider Aranguren kultur teknikaria izan ziren.

Mikel Pagola alkateak urte hauetan guztietan Sarobe Arte Eszenikoen guneari aukera zabalak azaldu zituen: "Arte eszenikoetan hainbat alor jorratu dira: Antzerkia, zinema, dantza, musika... Bada, alor horiek guztiak egitaraua osatzeko kontutan hartu dira.

Kosta egin zen, bestalde, baina azkenean lortu zen Sarobe urnietarren artean errotzea. Azken urteotan, ikastaro ezberdinen bitartez, urnietar asko eta asko bertako instalakuntzen erabiltzaile dira. Errotuta dago Sarobe, eta urnietarrei espreski zuzendutako jarduerak ere eskainiko ditugu". Herriaz gaindi, Sarobe kulturgintzan erreferentziatzeko gunea da. Hainbat antzerki konpainiarentzat obra berriak martxan jartzeko espazioa bilakatu baita. Bertan ekoizten eta prestatzen dira Euskal Herri mailan zabalduko diren antzezlan ugari. Hori dela eta, Urnietan ez ezik, Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidego mailan Sarobek duen garrantzia nabarmendu nahi izan zuen Pagolak.

Espazioaren moldagarritasuna azpimarratu zuen, bestalde, kultur jarduera ezberdinak garatu ahal izateko ezinbestekoa dena: "Filma edo antzerkia ikusteko berrehun eserleku jartzeko azpiegitura dugu. Baina berehala kendu daitezke musika emanal-

di bat antolatu nahi bada. Azpiegitura erabat moldagarria da, eta hain zuzen hori da konpainia askok azpimarratu izan dutena". Bertan izaten diren talde eta konpainiei lan egiteko espazioa eskaintzeaz gain, bulegoak eta azpiegitura osagarria eskaintzen zaie atrezkoa, iluminazioa edota dekorazioa prestatzeko. Horregatik ere, Sarobe erreferentziatzeko gunea da konpainia askorentzat.

Sarobe probaleku eta entsealeku izateak abantaila ekarri dio Urnietako kulturzaleari: "Urnietako jendeak onura ateradio, dantza eta antzerki konpainiak nagusiak hona etorri direnean entsegu irekiak eta emanaldiak inork baino lehen ikusi ahal izan dituelako. Ikuskizun horiek Donostian, Gasteizen edo Bilbon 15 edo 20 euro ordainduta ikusi ahal izan dira. Urnietan urte luzez 5 bost eurotan ikusteko aukera izan dugu".

Kulturgintzako izen handiak

Mikel Pagolak Urnietatik igaro diren izen handiak gogoan hartu zituen. "Extremoduro edo Siniestro Total taldeak bertan izan dira. Pet Shop Boys nazioarteko taldeak ere Bilbon eman beharreko emanaldia prestatzeko entsegu orokorrak bertan egin zituen. Hori musika munduari dagokionez. Zinema munduan, zinema eskola Saroben izan zen garaian Juanma Bajo Ulloa, Enrique Urbizu edota Julio Medem ikastaroak eskaintzen aritu ziren. Baita gidolari lanetan aski ezaguna den Mixel Gaztanbide ere".

"Sarobe kontzertuak" zikloa ere ez zuen aipatu gabe utzi nahi izan. Hainbat urtez martxan izan zen, Euskal Herriko hainbat talderen parte hartzearekin.

"Soinuen begirada", Sarobeko urteurreneko egitarauan nabarmentzen den ekitaldia

Soinuen Begiradak musika eta dantza egitasmo berriaren bidez, "herriari buruzko begirada historikoa eskaini nahi zaio, ikuspegi estetiko batetik". Udalak egitasmoa aurrera ateratzeko diru-laguntza eman eta Sarobe arte eszenikoen gunea erabiltzeko aukera eskainiko dizkio. Pagolak, Egañak eta Jauregik hitzarmena sinatu berri dute.



Udalak eta Txanbolin Bandak proiektua garatzeko hitzarmena sinatu dute. AIURRI



Irailaren 20an dantzariak eta musikariak aurrerapentxoak eskaini zuten. AIURRI

Ez zituen dantza konpainiak ahaztu nahi izan, onenak bertatik igaro baitira.

David Rosco zinegotziak alor horri eutsi zion, Mikel Pagolari lekukoa hartuz: "Hogeita bost urtez, Sarobe Aukeran dantza konpainiaren erresidentzia izan da. Udalarekin duen hitzarmenaren bitartez, Edu Murumendi-azek zuzentzen duen dantza taldeak bertan dauka bere erresidentzia. Bertatik sortu dira euren ikuskizunak. Aipatzekoak dira, askoren artean, 2015ean aurkeztu zuen *Fusioak*, *Geltokia* 2014an, *Burnia* 2011n, *Jai Alai* 2010ean. Azken hilabeteetan, bestalde, Madrilen izan dira *El Caserio* ikuskizunean parte hartzen. Parte hartze horren presaketan lanak Urnietan bertan egin dituzte. Urnietatik mundu zabalera, Aukeran plazaz plaza dantza tradizionala eta fusioa uztartzen ari da".

Urnietara etorritik, bertako antzerkigintzaren garapenean Sarobek izan duen garrantzia nabarmendu zuen: "Marizulo taldeak Urnietako historia urnietarrei eskaintzeko proiektua bertan jarri zuen martxan. Arrakasta handia izan zuen. Horren haritik beste bi ikuskizun sortu ziren: 1936, gerra zibileko pasarteak eskaintzen zituen. Eta baita *Urnietako 59* ere, industria iraaultza eta Espainiatik etortako inmigrazioa uztartu zituen. Urnietarrek sortutako hiru obra horiek, garrantzia handiak izan dira guretzat".

Marizulo taldetik antzerki tailerra sortu zela gogora ekarri zuen. 2011tik Urnietako Udal antzerki taldea martxan dagoela gogora ekarri zuen. Hainbat tailer eta emankizun eskaini dituzte geroztik. Antzezlanari loturiko prozesu guztia euren egiten dutela gogorarazi zuen. Hots, gidoia, eszenografia, jantzeria, argiak... Mikel Agirre-gomezkorta urnietarraren zuzendaritzapean.

Pozet eta harrotasunez har daitezkeen datu horiek guztiak eskainita, Eider Aranguren eta David Roscok 25. urteurreneko ekitaldiak aurkeztu zituzten. Azaroaren 15ean abiatuko da, eta lau asteburutan zehar, dozenatik gora kultur jarduerak izango dira. Saroberen ibilbideari fidela izanik, jarduerak ezberdinez gozatzeko aukera izango da: Dantza, antzerkia, musika, zinema...

Urnietako ikuskizun gogoangarriak



Marizulo, trilogiaren lehena. AIURRI

2008 | Marizulo Juan Agirre Sorondok idatzitako gidoiarekin, ikuskizuna Txanbolin txistulari bandaren ekimenez aurrera ateraz. Urnietako historiari lotutako pasarteetan oinarritutako istorioak aurki zitezkeen Marizuloren oinarrian.



Urnietako 59, trilogiaren bigarrena. AIURRI

2011 | Urnietako 59 XX. mendeko historia eta gaur egungo Urnietako ulertzeko garrantzitsua izan zen garai hura. Aldaketa ekonomikoak izan ziren, eta baita gizarte mailako aldaketak. Eta, nola ez, kultura eta hezkuntza mailako aldaketa sakonak ere.



Urnietako 1936, trilogiako hirugarrena. AIURRI

2013 | Urnietako 1936 Efemeridea aski ezaguna da, eta era berean gordin. Memoria historikoari atal berezia eskaini zioten Urnietan aurrera ateraz hiru garren ikuskizunean. Aurrekoekin alderatuta, erreferentziak askoz zehatzagoak ziren.

Bideo sorta Aiurri.eus gunean



Bideoa | Haur ikuskizuna Gaztetxean



Bideoa | Mintzalagunen spot berria



Bideoa | Odol emaileen ospakizuna



Bideoa | Mendiluzeren bertsoak Buruhandiei



Ezkabako ihesaldia biziberritzen duen ibilbidea lau etapaz osaturik dago. Andoaindarrek laugarrena osatuko dute, abenduaren 1ean. EMT

Xabier Lasa ANDOAIN

Iruñerriko Ezkabakoa Europan ezagutzen den presoek ihesaldirik handienetakoa izan zen. 1938ko maiatzaren 22ko gauan 798 preso ihesari ekin zioten, zaindariak mendean hartu eta gero.

Mendialdeko gotorleku hartan, 2.487 preso zeuden pilatuta; Errepublikaren alde borroka egiteagatik preso hartutakoak ziren gehien-gehienak, eta baldintza penagarrietan zituzten.

Hesean parte hartu zutenek Iparralderako bidea hartu zuten, baina bakar-bakarrik hiruk lortu zuten muga ganditu eta salbu jartzea. Gainerakoak atxilotu egin zituzten Ezkabatik Iparraldeko muga bitarteko bidean. Horietatik 206 harrapatutako leku berean erail eta lurperatu egin zituzten. 1937ko urtarriletik 1945eko uztaila bitarte egon zen zabalik gotorlekua, eta denbora horretan 305 preso hil ziren.

Hiru preso haiek egin zuten ibilbidean inspiratuta, azken urteotan GR-225 izeneko mendi ibilbidea txukundu, seinalizatu (marka txuri gorriekin) eta prestatu dute. Ibilbideak 54 kilometro ditu guztira, eta bidean zehar Erro, Esteribar, Anue bailarak eta Arga eta Ultzama ibaiak zeharkatzen dira.

Iruñetik Urepelerako txangoan zehar topa daitezkeen parajeekin gozatzeaz gain, bidean zehar jarri dituzten panelei esker iheslariak buruzko informazioa eskura daiteke.

Mendizaletasuna eta memoria

MENDIZALETASUNA Euskalduna mendigoizale taldeko kideek oroimen historikoa eta mendizaletasuna uztartu dituzte, azken hilabeteotako txangoetan. Nafarroan ibili dira Ezkaba gotorlekuko presoek 1938an egin zuten ihesaldiaren ibilbidea egiten

Ezkaba eta Urepel, lau etapa ezberdinetan

Irailean hasita, Euskaldunakoek lau etapetatik hiru osatu dituzte. Bidean zehar, gainera, andoaindarrek iheslariak omenal-ditxo bana egin diete Olaben zein Esteribarren.

1. Ezkaba-Olabé (14 km.).
2. Olabe-Saigots (14 km.).
3. Saigots-Sorogain (16 km.).
4. Sorogain-Urepel (10 km.).

Euskaldunako kideek abenduaren 1ean egingo dute azken etapa, Nafarroa Behereko Urepel herrian amaitzen dena.

**EZKABAKO IHESALDIA
BIZIBERRITZEN DUEN
MENDI IBILBIDEA
GR-225 DA, LAU
ETAPAZ OSATURIKOA**



Euskalduna mendigoizale elkarteak. EMT

Iheslariak gogoan

Andoaingo mendizaleek omenaldi bana eskaini diete ihesaldian parte hartu zutenei. Presoen artean andoaindarrak izan ziren. Datorren azaroaren 15ean ihesaldiari eta Andoaingo iheslarien xehetasunak eskainiko dituzte, Euskaldunako egoitzan.



Iker Karrera.

Hitzaldi sorta hastear den Mendi Astean

Euskaldunako egoitzan egingo dituzte saio gehienak, ohikoan bezala, iluntzeko 20:00tan hasita. Elkartearen batzarra, berriz, 19:00tan hasiko da.

Azaroak 11, astelehena
Aitor Abendaño:

“Groenlandia Bertikala 2017”.

Azaroak 12, asteartea
Sonia Casas:

“Alpinismo en femenino”.

Azaroak 13, asteazkena:
Bazkideen urteko batzarra.

Azaroak 14, osteguna:
Iker Karrera:

“Iker.Mendia.Etxea”.

Azaroak 15, ostirala:
Fermin Ezkieta:

“La fuga de Ezkaba”.

Ihesaldiari buruz gehiago jakiteko, Ezkietak “Los fugados del Fuerte de Ezkaba” (Pamiela argitaletxea) liburua aurkeztuko du, ihesaldiari buruzko makina bat agiri eta informazio jaso ostean. Hitzaldian zehar, Andoaingo Oroitzu elkarteak Ezkabako gotorlekuan preso egon ziren andoaindarri buruzko xehetasunak eskainiko dituzte.

Azaroak 16, larunbata:
Gazteekin batera, mendi ibilaldia: Andoain-Leitzaran-Belabi-Onddolar-Amasa-Villabona.

Irteera: 09.00.

Azaroak 17, igandea
Mendi irteera eta babarruan jatea, Urrestillan.

Liderraren garaipena

FUTBOLA Senior mailako taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen Añorgaren aurka (4-0). Denboraldian zehar maila handia erakusten ari dira jokalariek; jokaturako sei partidatatik berdinketa bat eta bost garaipen lortu baitituzte. Galtzea zer den ez dakite oraindik. Sailkapenean gertu dituzte Añorga eta Orioko taldeak.



EUSKALDUNA

Bigarren garaipena etxean

ESKUBALOIA Urnieta Artola Harategiak 30-26 irabazi zuen Errenteriako taldearen aurka, etxean jokaturako azken partidari. Partida bikain hasi eta hurrengo minutuetan aurkaria menpean hartuta ibili ziren

Erredakzioa URNIETA

Defentsa sendoa erakutsita, ofentsiba azkarrak egiteko aukera ematen zieten jokalariei; zelaian gustura sentitzen zirela ikus zitekeen, eta, horrela, aurkarietako abantaila lortu zuten. Errenteriako taldeak ez zuen etsi eta bi taldeen arteko aldea txikitzen lortu zuen, hare gehiago, etxekoak gailentzea lortu zuen.

Aurkaria defentsa gaingitzen hasi zen; atsedenaldia eta gero, 17-22 emaitzarekin, Ereintza Beissier taldea gehiago zela erakusten ari zen. Bi taldeentzat ezinbestekoa zen partida irabaztea, beraz, bertako jokalariek baloia berreskuratzen hasi eta amaierarako hamar minutu



Odei Jimenez Urnietako jokalaria. UKE

falta zirenean berdinketa lortu zuten. Azkenean, lau goleko aldearekin irabazi zuten urnietarrek,

burua hotz eta talde gisa jokatuta. Garaipenarekin mailari neurria hartzen hasi eta sailkapenean gorantz egin dute.

Neguko Liga Lasarte-Orian

IGERIKETA Andoaingo Nerea Irazu eta Izaro Audikana igerilariak Udako Txapelketetan parte hartzeko gutxieneko markak lortu zituzten. Junior eta senior mailan, Yaiza Martinezek 100 metro libreko marka hobetu zuen; Nerea Santos eta Jon del Rio urnietarrek ere euren markak gaingitu zituzten, 100 metro bizkar eta 100/200 metro bizkar probatan.



BIKT

KARTELDEGIA

FUTBOLA		
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA		
Euskalduna-Touring		1-1

SAILKAPENA		
1 Anaitasuna		21 puntu
12 Euskalduna		9 puntu

NESKAK, O. ERREGIONALA		
Urnieta-Goierri		2-0

ERREGIONAL PREFERENTE		
Urnieta-Hernani		1-1

ERREGIONAL 1. MAILA		
Intxurre-Euskalduna		5-0

SAILKAPENA		
1 Anaitasuna		15 puntu
4 Euskalduna		13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
15:30 Euskalduna-Segura / Lar, 9		

PREFERENTE NESKAK		
Añorga-Euskalduna		0-4

SAILKAPENA		
1 Euskalduna		16 puntu
2 Añorga		15 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA		
Mariño-Euskalduna		0-4

SAILKAPENA		
1 Euskalduna		22 puntu
2 Real Union		17 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
17:30 Euskalduna-Real Union / Lar, 9		

JUBENILEN 1. MAILA		
Urnieta-Ordizia		0-4
Euskalduna-Hernani		4-1

SAILKAPENA		
3 Urnieta		14 puntu
5 Euskalduna		11 puntu

KADETE, A MAILA		
Euskalduna-Astigarraga		6-0
Hernani-Urnieta		1-1

SAILKAPENA		
1 Euskalduna		21 puntu
6 Urnieta		5 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
17:00 Urnieta-Lengokoak / Lar, 9		

KADETE, B MAILA		
Urnieta-Santo Tomas Lizeoa		2-8
Usurbil-Euskalduna		4-0

SAILKAPENA		
1 Santo Tomas Lizeoa		18 puntu
5 Urnieta		6 puntu
6 Euskalduna		3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
12:30 Euskalduna-Orioko / Lar, 9		

KADETE NESKAK		
Astigarraga-Urnieta		4-0

SAILKAPENA		
1 Tolosa		21 puntu
5 Euskalduna		8 puntu
8 Urnieta		1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
12:30 Urnieta-Danena / Lar, 9		

ESKUBALOIA		
EUSKADI, SENIOR MUTILAK		
Urnieta-Ereintza		30-26

SAILKAPENA		
1 Basauri		13 puntu
9 Urnieta		4 puntu

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK		
Txingudi-Leizaran		31-27

SAILKAPENA		
1 Txingudi		10 puntu
4 Leizaran		6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
11:15 Leizaran-Muntzarpe / Ig, 10		

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK		
Urnieta-Elgoibar		36-20
Hettich-Leizaran		22-23

SAILKAPENA		
1 Urnieta		8 puntu
3 Leizaran		7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
17:45 Leizaran-Urnieta / Lar, 9		

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK		
Urnieta-Laubide		34-19
Leizaran-Pulpo		19-21

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK		
Leizaran-Saieko		33-15
Legazpi-Urnieta		24-37
Leizaran-horia-Irun		14-42

SAILKAPENA (-A-1. TALDEA)		
1 Amenabar		10 puntu
2 Leizaran		8 puntu

SAILKAPENA (-A-3. TALDEA)		
1 Aloña Mendi		8 puntu
2 Urnieta		8 puntu

GIPUZKOA, KADETE NESKAK		
Leizaran-Elgoibar		29-18
Urnieta-Aiala		17-23
Alaia-Leizaran-horia		2-25
Aiala-Urnieta I.M		11-12

ASTEBURUKO PARTIDA		
10:15 Leizaran-Horia-Bergara / Lar, 9		
10:00 Urnieta-Aiala / Ig, 10		

ARETO FUTBOLA		
GIPUZKOAKO 1. MAILA		
Antiguoko-Euskalduna		3-3

SAILKAPENA		
1 Oiartzun		11 puntu
4 Euskalduna		8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
16:15 Euskalduna-Idiazabal / Lar, 9		

SASKIBALOIA		
SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA		
Zurrut S.K.-Oiarso		48-24

JUNIOR GIZONEZKOAK		
Ganbara-Hondarribia		28-47

KADETE GIZONEZKOAK		
Eibar-Ganbara		63-36

ASTEBURUKO PARTIDA		
19:30 Ganbara-Antigua-Luberri / lar, 9		

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 7

URNIETA Jabekuntza eskola
Ahinitz Gerrikagoitiak dinamizatuta,
"Hilekoaren zikloaren erritmora.
4 ilargiak gugan" izenburuko tailerra.
18:30-21:30, Sarobe.

OSTIRALA 8

URNIETA Ipuin kontaketa
Marisa Taberneroren saioa.
17:30, Ludoteka. Doan.

ANDOAIN Zikloa
Indarkeria matxista bizitzen ari diren
emakumeen autonomiarako zerbitzua
ezagutarazteko hitzaldia.
18:00, Bastero.

LARUNBATA 9

ANDOAIN Erakusketa
"Eremuak-Harriak", azken eguna.
Erakusketa gela. Bastero.

ANDOAIN Kontzertua
Artritis eta Arpavieja musika taldeak.
22:30, Gaztetxea.

IGANDEA 10

ANDOAIN Ikus-entzunezkoak
18:00tan hasita, hiru laburmetrai (El
viento africano, Sintonia, Sarean).
18:45tik aurrera, "Monos como
Becky" dokumentala.
18:00, Gaztetxea.

LASARTE-ORIA Agerraldia
Buruntzaldeko SAREko ordezkariak
larriki gaixorik dauden euskal
presoak etxeratzearen aldeko
mobilizazio kanpaina aurkeztuko
dute.
19:00, Okendo plaza.

ASTELEHENA 11

ANDOAIN Jabekuntza eskola
Batukada feministaren saio berria.
19:00-21:00, Gazte Lokala.

URNIETA Erakusketa
"Soinuen begirada", Txanbolin.
Lekaio.



Txan Magoa ostiral honetan Andoainen izango da. **AIURRI**

ANDOAIN "Inpernutik natorren artista bat naiz ni!"

"Miraririk badela esaten badizute...
etzazula sinistu. Gauzak bere kabuz
mugitzen direla esaten badizute...
etzazula sinetsi. Baina magiarekiko
sinezgaitz direla esaten badizute...
Ez dute oraindik Txan Magoaren
azken sorkuntza ikusi". Helduei
zuzendutako ikuskizuna da.
Azaroak 8, ostirala.
22:30, Andoaingo Gaztetxea.

ASTEARTEA 12

ANDOAIN Ikastaroa
Bateria jotzeko ikastaro azkarra.
18:00-21:00, Gaztetxea.

ANDOAIN Sari banaketa
Martin Ugalde ipuin lehiaketa.
18:30, Bastero.

ASTEAZKENA 13

URNIETA Erakusketa
Soinuenea, Aurrera Gure Ametsaren
eskutik. Bisitaldi gidatua 18:30ean.
16:00-20:00, Lekaio.

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Hitzaldia
"Indarkeria matxistaren errelatoaren
garrantziak".
18:30, Bastero.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Hitzaldia
"Gazteria eta jokoa" hitzaldia: Zer
dago apostu etxe eta joko aretoen
atzean?
19:00, Gaztetxea.

URNIETA Kontzertua
Alazne Maneroren omenez: Ana Belen
Garcia (organoa), Haritz Ezeiza (txistua
eta dultzaina) eta Bittor Carrera
(oboea), dantzariekin batera.
19:00, eliza.

URNIETA Antzerkia
"Lloviendo ranas", Ados teatroa.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia
"Espacio disponible", Perigallo Teatro.
21:30, Bastero.


LARUNBATA 16

URNIETA Ospakizuna
Kulturarteko jaia. Egitaraua:
11:30-13:30 Tailerrak.
12:30-13:30 AfroRap Zizoo Du Zoo.
14:00-16:00 Janari dastaketa.
15:30-17:00 Musika tailerra.
17:00-18:00 Afrikako taldea.
18:00-18:30 Tai Chi tailerra.
Egun osoan zehar, Egape.

ANDOAIN Ekitaldi ezberdinak
Mus Txapelketa eta pintxopotea.
17:00, Gaztetxea.

URNIETA Kontzertua
Ainhoa Larrañaga eta Sara Zozaya.
19:30, Sarobe.

ZINEMA



ZINEMA
ANDOAIN
Joker
Lar, 9: 22:00.
Ig, 10: 19:30.
Astl, 11: 19:30,
22:00.

Abominable
Lar, 9: 17:00.
Ig, 10: 17:00 (3D).
URNIETA
Wheely
Ig, 10: 17:00.



SINOPSIA



Joker
Zuzendaria: Todd Phillips. **Gidoia:** Todd Phillips, Scott Silver.
Aktoreak: Joaquin Phoenix, Robert de Niro... **Herrialdea:** AEB
(2019). **Generoa:** Drama, Thrillerra. **Iraupena:** 121 min.

Urteko filma, askorentzat

Zeresan handia ematen ari den
filma da. Guztion ahotan da
Joaquin Phoenixen lana, eta
aditu askok dagoeneko Oscar
sarietarako aktore onenaren
irabazletzat hartu dute. Arthur
Fleck filmaren protagonista
Gothamen bizi da, amarekin.
Jendeak irri egitea du helburu,
baina dituen arazoak direla eta,
ikuslegoak pertsona arrarotzat
hartzen du. Ikusezin bihurtu
duen gizarteari aurre egitea
erabakitzen du.


"Xokolat" antzezlanana Saroben

Txanpon beraren bi aldeak bailitzan, zeharo ezberdinak dira
antzezlanaeren bi protagonistak. Bata, errutinazalea. Bestea,
oldarkorra. Egun batean, elkarrekin ezohiko gauza bat egitera
ausartuko dira: Txokolatea. Probatuz, dastatuz eta gozatuz igaroko
dute antzezlanana. Sarrerak bibe.me webgunean salgai, eta baita
Saroben ere. Urnietarren artean lau sarrera bikoitz zozketatuko
dituzte, azaroaren 10a bitarte parte hartzen dutenen artean.
Azaroak 17, igandea. 18:00, Sarobe. 3 euro.



Taula gainean Rosa A. García eta Maitane Goñi aktoreak arituko dira. **SAROB**


ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Martin Sanchez Otaegui
Azaroaren 3an 10 urte bete zenituen. Mutil atsegin batean bihurtu zara, jarraitu horrela.



ANDOAIN
Hodei
Azaroaren 8an Hodeik 9 urte beteko ditu. Muxu handiak etxekoan partez. Zorionak!



URNIETA
Unax Ugarte
Unax Ugartek azaroaren 1ean 9 urte bete zituen. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.



ANDOAIN
Aimar Aizpurua Otaño
Zorionak, bihotza! Jada badira 7 urte gure bihotza bete zenuenetik. Asko maite zaitugu!

ODOL EMAILEAK

ANDOAIN

Azaroak 12, asteartea
18:30-20:30. Anbulatorioa.

URNIETA

Azaroak 27, asteazkena
18:30-20:30. Anbulatorio zaharra.

HERNANI

Abenduak 3, asteartea
18:00-20:30. Anbulatorioa.

MERKATU TXIKIA

ESKAINTZAK

FRANTSES IRAKASLEA

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI lortzeko, mintza-praktika etab. **693 692 823 - 665 719 827.**

TXAKURRA

Lau hilabetetako arratoi txakur arra opari. Deitu: **634 44 13 53.**

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 9 eta igandea 10
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629 Andoain.

URNIETA

Larunbata 9 eta igandea 10
AGUADO: Kale Nagusia, 21.
943 550 327 Astigarraga.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Argazki berria aterako dute, larunbat eguerdian

Duela egun batzuk Aita Larramendi ikastolak deialdia luzatu zuen, 1963an ateratako argazkian agertzen ziren herrikideak identifikatzeko laguntza eskatuz. Dei mordoak izan dute, eta batek baino gehiagok ikusi du bere burua Ikastolako lehen promozioaren argazkian. Doña

Juanitaren etxean ateratako argazki hura, Bazkardoko eraikin berriaren inaugurazio ekitaldian errepikatuko dute. Larunbat honetan izango da, eguerdiko 12:00tan. Lehenago, 11:30ean hasita, bertaratzen direnek berrikuntza guztiak ikusi ahal izango dituzte.

Urte baterako lan eskaintza luzatu du Andoaingo Udalak

Interesatuak azaroaren 10a baino lehen egin behar du eskaera, Lanbide.eus webgunearen bitartez

Erredakzioa ANDOAIN

Kontratazio dirulaguntzak dinamizatzeko teknikaria behar du Andoaingo Udalak, eta urte-beterako lan eskaintza publikoa egin du. Lanaldia %56koa izango da, azaroan bertan lanean hasteko. Ohar bidez, interesatuak honako baldintzak bete behar dituela zehaztu dute:

- Langabezian izan behar dute, eta alta egoeran Lanbiden egoitea.
- Lehenasuna izango du emakumezkoa eta 35 urtetik beherakoa izateak.
- Euskara: EGA edo baliokidea.

- Beterri-Buruntzako udalerrietako batean erroldatuta egotea (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil).

Interesatuak eskaera www.lanbide.eus bidez egingo dute, azaroaren 10a baino lehen. Informazio gehiago Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazteria Lantsalean (943 304 221).

Kontratazioa 'Tokiko Enplegu Ekintzak' programaren bidez egingo da, Lanbide euskal enplegu zerbitzuaren eta Beterri-Buruntzako Udalen arteko lan-kidetza esparruaren baitan.

DANTZA "ORBEL JAUTIA emanaldia" Orbeli Dantza Taldea
azaroak 8, OSTIRALA, 19:30 Suteqi **SARRERAK**

SOLASALDIA "Josune Arakistain, Huntra taldeko abeslaria"
azaroak 12, ASTEARTEA, 19:30 Suteqi **DOAN**

ANTZERKIA "Tabernaria"
azaroak 16, LARUNBATA, 20:00 Suteqi **SARRERAK**

KALEJIRA-BERTSO BAZKARIA "Malalen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariekin"
azaroak 9, LARUNBATA, 12:30 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA**

POESIA ERREZITALDIA "Ugaitz Agirre-ren poesia"
azaroak 15, OSTIRALA, 19:30 Suteqi **DOAN**

PELIKULA "AGUR ETXEBESTE"
azaroak 17, IGANDEA, 19:30 Suteqi **SARRERAK**

KONTZERTUA "IZAKI GARDENAK"
azaroak 10, IGANDEA, 19:00 Suteqi **SARRERAK**

NOAUA/KO KULTURALDIA 2019

USURBIL AZAROA

***SARRERAK:** Aldez aurretik Bordatxon, Txirristan, Lizardin eta Noaualko egoitzan. Noaualko bazkideek prezio berezian Noaualko egoitzan aldez aurretik. **BAZKARI-TXARTELA:** Bordatxon, Noaualn eta Aitzagan salgai



Ekonomia soziala, Hernanin aztergai

Argia, Fagor Ederlan, Talleres Mitxelena, Katea Legaia eta TaPuntu enpresen eskutik, Oronan

Jon Ander Ubeda ESKUALDEA
Ezaguna denez, Beterri-Buruntzako herrietan garapen agentzia sortzeko lanean ari dira. Prozesu horretan, ekimen ezberdinak eraman dira aurrera. Besteak beste, "Beterri Saretuz" izeneko programa. Ostegun honetan, goiz osoko jardunaldia antolatu dute Hernaniko Orona-Ideon, helburu zehatzarekin: Partaidetza oinarri duten enpresen ekosistema sortzea.

Bertara gonbidatu dituzte eskualdeko enpresak, lanbide heziketako eragileak, ekintzaileak, co-working zentroetako kideak eta garapen agentziak. Jardunaldia aurrera ateratzeko Gipuzkoako Aldundiaren eta Beterri-Buruntzako udalen laguntza izan dute.

Sustatzailerak, ohar bidez, egindako lana eta, bereziki, egitear dagoena azpimarratu nahi izan dute: "Joan den ikasturtetik ari gara lanean hainbat enpresa eta eragile, ekonomia sozial eta eraldatzailearen bueltan sare eraginkor bat sortzeko helburuz. Ez da ohikoa enpresek euren barne antolaketaz eta funtzionamenduaz modu irekian hitz egitea. Jardunaldian halaxe egingo dute".

EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuko Aitor Bengoetxea zuzendariaren azalpenen ondoren, enpresa ekimenei tartea eskainiko zaie. Hauexek dira lehen jardunaldiko gonbidatuak: Talleres Mitxelena, Argia, Fagor Ederlan, Katea Legaia eta TaPuntu. "Sektore, tamaina nahiz izaera askotakoak izanik, ikuspuntu anitza" eskainiko dutela iragarri dute antolatzaileek. Langileek enpresa barruko kapitalean eta erabaki estrategikoetan parte-hartzea ekonomia sozial eta eraldatzailearen funtsetako bat da. Jardunaldia ostegun honetan izango da, goizeko 09:30etik eguerdiko 13:30era.



Boto zenbaketa joan zen apirilaren 28an, Espainian deitu zituzten azken Hauteskunde Orokorretan. AIURRI

Hauteskunde Orokorrak igande honetan

Lau urteko epean laugarren aldia izango da Espainiako gorteak osatzeko herritarrak deitzen dituztela. 2019ko apirilaren 28an izan zen parte hartze handiarekin alderatuta, igandean abstentzioaren gorakada aurreikusten da

Gurutze Gorria

Andoainen zerbitzu berezia eskainiko dute (09:00-14:00), mugikortasun arazoak dituzten pertsonak botoa ematera laguntzeko. Zerbitzuaz baliatzeko deitu egin behar da: 617 323 478.

Erredakzioa ANDOAIN

2019a hauteskundeen urtea izan da. Apirilaren 28an Espainiako presidentetza aukeratzeko deialdia egin zuten, zeinean Pedro Sanchez sozialista izan zen irabazlea. Hilabete eskasera udalerrietako, Foru Aldundiko eta Europako hauteskundeak deitu zituzten. Eta ekainaren 15eko udal korporazioen osaketa eta gero, Espainiako gobernuaren osaketan gorabehera handiak izan dira. Akordiorako aukera zabalak izan arren, ez da adostasunik lortu eta behin behinean dagoen gobernuak hauteskunde berriak iragarri ditu.

Gipuzkoan, eta bereziki Andoainen eta Urnietan, lau alderdiren artean banatuko dira boto gehienak: EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta PSE-EE.

Ziurra da, bestalde, denen gainetik gailenduko den aukera abstentzioarena izango dela. Apirilekoan baino gehiago.

Azken hiru Hauteskunde Orokorretako emaitzak

Andoain 2019, apirila		
Alderdia	Botoak	%
PSE-EE	1.995	%24,61
EAJ-PNV	1.833	%22,61
EH Bildu	1.820	%22,45
Podemos	1.599	%19,73
PP	355	%4,38
C'S	245	%3,02
VOX	95	%1,17
Abstentzioa	3.175	%27,99

Urnietan 2019, apirila		
Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	1.001	%29,34
EH Bildu	711	%20,84
PSE-EE	670	%19,64
Podemos	664	%19,46
PP	142	%4,16
C'S	99	%2,90
VOX	50	%1,47
Abstentzioa	1.307	%27,50

Andoain 2016, ekaina		
Alderdia	Botoak	%
Podemos	2.378	%32,38
EH Bildu	1.383	%18,83
PSE-EE	1.300	%17,70
EAJ-PNV	1.263	%17,20
PP	636	%8,66
C'S	230	%3,13
Abstentzioa	4.064	%35,49

Urnietan 2016, ekaina		
Alderdia	Botoak	%
Podemos	933	%32,33
EAJ-PNV	646	%22,38
EH Bildu	444	%15,38
PSE-EE	435	%15,07
PP	250	%8,66
C'S	108	%3,74
Abstentzioa	1.826	%38,62

Andoain 2015, abendua		
Alderdia	Botoak	%
Podemos	2.339	%29,40
EH Bildu	1.542	%19,38
PSE-EE	1.472	%18,50
EAJ-PNV	1.345	%16,91
PP	597	%7,50
C'S	272	%3,42
Abstentzioa	3.531	%30,63

Urnietan 2015, abendua		
Alderdia	Botoak	%
Podemos	882	%28,24
EAJ-PNV	777	%24,88
EH Bildu	535	%17,13
PSE-EE	451	%14,44
PP	232	%7,43
C'S	122	%3,91
Abstentzioa	1.599	%33,8

*Iturria: Espainiako Barne Ministerioa.